

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 2012rako Aurrekontuen Legearen aurreproiektua aztertu du

Gobernuak datorren astelehenean, azaroaren 7an, onetsiko du Foru Legearen proiektua eta Nafarroako Parlamentura bidaliko du

Viernes, 04 de noviembre de 2011

Álvaro Miranda Simavilla bigarren presidentorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren gaurko goizeko saioaren buru izan da. 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren Legearen aurreproiektuaren kopuruak aztertzeko elkartu dira. Gastua, guztira, 3.837,7 milioi euro izango dira, eta horietatik 3.711 gastu ez finantzarioa, hau da, departamentuek gauzatu ahal izango duten gastua. Azken zenbateko hori % 2,95 jaitsi da 2011ko ekitaldiko gastuaren mugari dagokionez.



Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren bilera 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren inguruan jakinarazteko

EGK-k 2012rako Tributu eta Neurri Fiskalei buruzko Foru Legearen aurreproiektua ere aztertu du. Araudiaren arabera derrigorrezkoa den balorazioa egin ondoren, Nafarroako Gobernuak bi dokumentuak onetsiko ditu datorren astelehenean, azaroak 7, ezohiko bileran, eta, ondoren, Foru Parlamentura bidaliko ditu izapidetu eta onetsi ditzaten datorren abenduan, 2012ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu aurretik.

EGK kontsultarako organoa da, eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren mendekoa da. Organoaren egiteko nagusia arlo sozioekonomikoak arautzen dituzten foru legeen aurreproiektuei, bereziki Nafarroako Aurrekontu Orokorren aurreproiektuari, ekonomiaren, zergen, lanaren, nekazaritzaren, enpleguaren eta gizarte ongizartearen gaiei buruzko txostenak eta irizpenak ematea da, Nafarroako Gobernuak edo Parlamentuak eskatuta edo kontseiluaren beraren ekimen gisa.

EGK honako erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute: Foru Erkidegoko Administrazioa, Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioa, UGT, Comisiones Obreras, ELA eta LAB sindikatuak, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren patronala, Nafarroako Nekazaritza Kooperatiben Elkarteak, Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Elkarteak, Nafarroako EHNE sindikatua, Nafarroako Lan

Enpresen Elkarte, Gurelur ekologisten elkarte, Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Irache Kontsumitzaileen Elkarte.

Gaurko bileran, Miranda presidenteordeak ondoan izan ditu Lourdes Goicoechea Zubelzu Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilaria eta Juan Franco Pueyo Aurrekontuen zuzendari nagusia.